

Año LIV. urtea

133 - 2022

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCVMENTA

SEPARATA

## Oltzako aldaeraren inguruau

(2 – Ihabarko azpialdaera)

Koldo Artola

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 133. zk. - 2022

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: proposamenen ebaluazioa

Ander Egurtzegi 9

Paul Broca, garunetik hizkuntzara euskararen bideetatik

Joanes Atxa Olaiz 37

Oltzako aldaeraren inguruan (2 – Ihabarko azpialdaera)

Koldo Artola 61

Irudikapenetik esperientziara: euskal literaturaren ikerketa feministaren hastapenak XX. mendearen bukaeran

Maite Luengo Aguirre 115

Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan: merkataritzako esparrua

Idoia Granizo Uribarrena 131

Euskal doinueren ulermenak: Markinako galderak eta baieztapenak

Izaro Bedialauneta Txurruka, Jennifer Zhang, José Ignacio Hualde 159

Pertsona murritzapenak ditu egitura inpersonalak: euskararen kasua

Ane Odria, Ane Berro, Beatriz Fernández 191

### ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

*Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)*

Ane Irizar Melero 223

### VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa  
(I. dokumentu argitaratuak)

Ekaitz Santazilia 229

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /  
Rules for the submission of originals

259

# Oltzako aldaeraren inguruauan

## (2 – Ihabarko azpialdaera)

---

Acerca de la variedad de Olza (2 – Subvariedad de Ihabar)

---

A look at the variety of Olza (2 – Sub-variety of Ihabar)

Koldo Artola

Etnografia Saila-Aranzadi Zientzia Elkartea

kmartola@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0001-5139-3658>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv133.3>

Jasotze data: 2021/11/30. Behin-behineko onartze data: 2022/01/17. Behin betiko onartze data: 2022/04/04.

## LABURPENA

Aurreko saio batean ibar honetako hizkera bi zatitan emateko egin hautuaren berri eman genuen, Yrizarrek arrazoituriko iritzietan oinarritutik: Bonaparteren euskalkien sailkapena errespetaturik betiere, Yrizarrek Ihabarko euskara Arakilgo gainerako herrietakoetarik bereizi zuen, aditz iragangaitzeko era bipertsonaletan bataren eta besteen arteko ezberdintasun nabariak zeudela kontuan harturik, era honetako Ihabarko adizkiak Sakanako Arbizuraino iristen direnez gero. Lan honetan, bada, Ihabarko euskararen erakusgarriak dakartzagu, aurretik emandakoen osagarri: XIX. mendearren amaieran eta XX.aren hasieran jaiotako berriemaileen ahozko lekukotasunen transkripzioak.

**Gako hitzak:** hego-nafarrera; Oltzako aldaera (Ihabarko azpi-aldaera); euskal dialekto-  
logia.

## RESUMEN

En un trabajo anterior explicamos por qué debía diferenciarse el habla de Ihabar del habla del resto de Arakil, basándonos en las opiniones Yrizar al respecto: respetando siempre la clasificación dialectal del príncipe Bonaparte, Yrizar dividió el euskara de Arakil en dos partes, teniendo en cuenta las características de las formas verbales bipersonales intransitivas que, en el caso de Ihabar, diferenciándose de las del resto de su valle, se extienden hasta Arbizu. En este trabajo ofrecemos diversas muestras del euskera de Ihabar; en concreto, presentamos las transcripciones de testimonios orales ofrecidos por informantes nacidos a finales del siglo XIX e inicios del XX.

**Palabras clave:** alto-navarro meridional; variedad de Arakil (subvariedad de Ihabar); dialectología vasca.

## ABSTRACT

In a previous work we explained why the speech of Ihabar should be differentiated from the rest of Arakil, based on the opinions of Pedro de Yrizar in this respect. That is, always respecting the dialectal classification of Prince Bonaparte, Yrizar divided the Basque of Arakil into two parts, taking into account the characteristics of the intransitive bipersonal verb forms, which, in the case of Ihabar, departing from those of the rest of its valley, extend as far as Arbizu. In this work we offer several samples of the Basque language of Ihabar; specifically, we present the transcriptions of oral testimonies offered by informants born at the end of the 19th century and the beginning of the 20th century.

**Keywords:** Southern Navarrese Basque; Olza variety (Ihabar subvariety); Basque dialectology.

1. SARRERA.
2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK.
3. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA.
4. IHABAR: AGUSTINA IRURZUN IHOLDI, ARRANZARENA ETXEKOA.
5. IHABAR: ANTONIO ARRAIZA IRAÑETA, GALARNEA ETXEKOA.
6. IHABAR: MICAELA HUARTE ARRARAS, SAKRISTARENA ETXEKOA.
- 6.1. Nekazalgo-gaiak eta eskulanak.
- 6.2. Garai bateko herri-giroa.
- 6.3. Haur-jolasak.
- 6.4. Erlilioarekikoak.
- 6.5. Festa-girokoak.
- 6.6. Ohiko sendagintzaz zerbait.
- 6.7. Bestelakoak.
7. ERREFERENTZIAK.

## 1. SARRERA

Saio honetan, Bonaparte printzeak *ultrapamplonés* azpi-euskalkiaren barruan Oltza izenaz sailkatu zuen aldaerari egokitutik Arakilgo herri batean, Ihabarren, 1980ko hamarkadan bildu ahal izan genituen euskarazko laginen berri ematera gatoz.

Ihabarko ekaia bereizi ditugu Arakilgo beste herri batzuetan bildu eta honen aurreko lanean «(1 - Arakilgo azpialdaera)» azpitituluaz prestatu genuen saiotik, Pedro de Yrizarrek 1992an argitaratu zuen *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* lanean ikusi uste zituen ezaugarri edo berezitasun batzuk kontuan harturik.

Tentuz ibiltzeko kontua hauxe, nolabait, Ihabarko mintzairia NOR-NORI kasuko orainaldian *-dakie, dakizu, dakio...* – Arakilgotik bereizten baita, printzeak *alto-navarro septentrional* deitu zuen euskalkian kokatu zituen Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte, Irañeta eta Murginduetako joerara lerraturik egotean, Ihabartik ekialderantz halakoek *z-* baitute hasiera: *zaikie* edo *zaide*, *zaikizu* edo *zaizu*, *zaikio* edo *zaio...* alegia.

Haatik, Ihabarrek Urritzolara bitarteko herriekin partekatzen duen ezaugarri esanguratsua adizki alokutiboena da, tokakoena batik bat. Hots, ‘ni ninduan’ eta ‘gu ginduan’ kasuetarako, *te* agerikoa den *nuten* eta *giñuten* ditugu, denbora batean Oltzan eta Goñerrin erabili ziren *nute* eta *gindute* gisakoen antzera.

Irañeta eta Murgindueta dira, hala ere –Irañeta Arakilgo parte izan zen 1734ra arte–, ibar honekin antzekotasunik handienak mantendu dituztenak, pluraleko bigarren

pertsona tartean dagoen kasuetan, adibidez: ‘zuek hora’, *duzte*; ‘zuek hari hora’, *diozte*; eta ‘nik zuei hora’, *diztet*, hemendik ekialderantz ere, Ihabarren zein Urritzolan, era hauexek bildu baikenituen iragan mendeko laurogeiko hamarkadan.

Lan honen aurreko entrega (Artola, 2021) Arakilgo eta Ihabarko mintzairen inguruoko ezaugarri batzuk, denak batera, hona ekartzeko baliatu genuenez, balizko interes-duna hartara bideratzen dugu.

## 2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK

Jarraian aipatuko ditugunak Arakilgo eta Ihabarko azpialdaerekin zerikusia duten datuak dira osoki, Arakildik kanpora ez baikenuen ezer aurkitu ahal izan, Oltzako aldaera osatzen omen zuten ibarretan barrena.

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa ñ idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa ë; *o* eta *u* artekoa, ö. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, ù idatzi dugu.

Azken horrek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean zer-nola jokatzen zuten adierazteko hark berak idatziriko orrian<sup>1</sup> zera irakur daitekeela: «Uriz: á, eá, ía, oá, úa». Azken honen kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntutxo bat ageri da.

Hots hori Artzibarko eta Erroibarko aldaeretatik Olaibarkora igarotzean desagertuz doa, Gaskuen bi aldiz eta Gelbentzun eta Ziaurritzen bana baizik ez baitugu entzun, baina hemendik mendebalderantz ere, Txulapaingo Beorburun eta Arakilgo Urritzolan bederen –eta Ihabarren aldi batez ere bai–, sumatu dugu haren arrastoa.

Ia aditzen ez diren hotsak, honen aurreneko saioan egin bezala, parentesi artean idatzi ditugu. Zalantzagarria edo ezezaguna zaigun hitzaren ondoan, parentesi arteko galdera-ikurra (?) idatzi dugu eta harridura sorrarazi digunaren alboan, berriaz, harridura-ikurra (!). Halaber, pasarte ilun batzuk parentesi arteko eten-puntuak idatziz [...] ekidin ditugu.

Parentesi karratuak [ ] erabili ditugu maiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu dugunean, hauetan jasotzen dena argitzeko.

Beste kontu bat da galdera-ikurrena. Irakurlea ohartuko denez, zeinu hori ez dugu soilik galderetan erabili, berriemaileek zenbait esaldiri galdera-itxurako intonazioa eman dioten hainbat alditan ere bai baizik.

1 Pagola et al. (1996) lanaren azalean ageri da hori.

Tildeak testu batzuetan –inoiz hauetako zati soilen batean ere bai– markatu ditugu, duela ez aspaldiko gure ohiturari jarraikiz. Bi eratako azentuak erabili ditugu: indar edo intentsitate handikoa (‘) bata, eta hori baino txikiagokoa (‘) bestea.

### 3. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA

#### Ihabar

Agustina Irurzun Iholdi, 1905

Ama: Irañeta / Aita: Ihabar

Antonio Arraiza Irañeta, 1911

Ama: Ihabar / aita: Uharte-Arakil

Micaela Huarte Arraras, 1898

Ama: Ihabar / aita: Uharte-Arakil

Jarraiko testuetan joan den mendeko laurogeiko hamarkadan Ihabarren aurkitu genituen adin handiko hiru laguni bildu genizkion euskarazko lekukotasun batzuk islatu ditugu. Erraz antzeman daitekeenez, lehenengo biak doi-doi ziren gauza euskaraz aritu ahal izateko, baina hirugarrena, adinean besteak baino zaharragoa, normaltasunez bakarrik ez, erraztasunez ere mintzo zen eta, ondorioz, bildu ahal izan genion zenbait kontu interesgarri, polit bezain aberatsak batzuk, baita Pedro de Yrizarentzat (1992) aditz indikatiboa ere.

Egundoko zoria izan genuen andre Micaela aurkitzean. Bera baino lehenago ezagutikoa andre Agustinarengana joan ginenean batean, honek jakinarazi zigun hura herrira etorri berria zela, Aste Santuko egunak bertan igarotzena, Irunen bizi baitzen alaba batzen familiarekin senarra hil eta gero. Agustina andere xaloak, halaber, Micaela hiztun ona eta oso abegikorra zela esan zigun. Hortik aurrerakoa erraz asma daiteke: Micaela ikusteria joan, pixka bat limurtu eta, handik egun gutxira, Irunen berarekin biltzen hasi. Bere alaba Flora ere laguntzaile bikaina izan genuen, maiz bulkatu eta animatu baitzuen ama euskaraz mintzatzera.

### 4. IHABAR: AGUSTINA IRURZUN IHOLDI, ARRANZARENA ETXEKOA

#### Bere alabaz zerbait (1981)

Nik doket alaba at, alaba bat... Frantzian, Paris, ezkondua? ¿cómo diré con un francés?  
– Frantses batekin.

Bai, eta oso da, oso ona; nire aixkideak e, esan, esan zagun (!) francesakin, ezkondu bea? alaba? Jesus!... oso ona atra, oso ona.

– Bai, e? Gizon ona da...

Bai, bai; esto, ogei urten? daoken...

– Ezkondurik?

Ogei urte, eta... todos los años ¡qué pena! no puedo...

– Urte oro?

Bai, urtero? etorri...

– Etorri dira?

Torri dira? no; eso es ‘ya han venido’, ¿no? ‘vienen’, dire...

– Heldu dire? Etortzen dira?

Bai, bai, esto... ¿cómo es el verano?

– Bai, udan?

Udan, bai; eta... también, también Paskotan, Navidad.

– Eta Eguberrietañ ere.

Bai, bai, eta ni? ni? juaten naiz, udean, illebetea pastea.

– Oso ongi...

Oso ongi; eta... ‘yerno’ ¿cómo se dice en vasco?

– Suhia.

Suya? e... juan den urtian, eman zien, ¿cómo se dice? me llevó...

– Eraman.

Bai, eraman: Beljika? Bruselas? eta mundu, erdi mundue ikusi ut.

– A! Bai ongi, e?

Oso ongi; beño ya? e... me parece ¿cómo se dice?

– ‘Uste dut’ edo?

Ete ez... a!...

– ‘Ez naizela gehiago joango’?

Bai, bai-bai, ya zarra dee, zarra naiz te, obe itxan, bai.

– Zaharra zu? ez...

Ille zurie ta be!... zarra.

– Oi! Ile zuria, nik ere bai; eta gazteagoa naiz zu baino, baina ilea...

Bai, ¡hombre! nik? e... txurie? se me puso, ogei tu-, ogeitamarr urte; bai, bai, zuribe.

Eta... ¡ui, qué pena!... nunca me he teñido.

– Inoiz ez duzu tintatu.

Ez, orpegie, aurpegiek... la cara dice la edad que tiene, ¿no? bai, bai, esaten du... urteak, bai. Oi! [barrez]... ¡qué torpe estoy! ¿verdad?

– Tira, hitz egiteko ohitura galtzen bada...

Klaro, Jesus!... eta doket e... euskera? lo, lo, oso lo, lo, dormido [barrez].

– Ahaztuta, e?

Aztu ez! ai! logan, ¡dormido! Yo, si me pondría a hablar así, ¿todos los días? me vendría... resucitaría el vasco.

### Ihabarkoek Murginduetakoei, isekaz-edo (1985)

Murgitárras, tirritárras [txikitán aditua].

### Inkesta bateko datu batzuen azterketa

Datozen lerroetan, euskararen ezagutza mailan, Agustina eta Micaelaren arteko jauzia zer-nolakoa zen agerian jartzen duten adibide batzuk dakartzagu, kuriositate

gisa bada ere. 1986an, Aranzadi Zientzi Elkartearentzat, Marcel Cohen hizkuntzalari frantsesaren inkesta etnolinguistiko bat Agustinari, zailtasunak zailtasun, galderak egi-teko erabiltzen hasi baginen ere, handik urtebetera, lehen aipatu Micaela ezagutzean, honen gaitasunaz baliatu ginen hark baino erantzun osoagoak eta zuzenagoak ematen zituenez.

Diogunaren erakusle, biei egindako galdera batzuei batak zein besteak emaniko erantzunak daude 1. taulan (A = Agustina dela, eta M = Micaela).

#### 1. taula. Bi hiztunen erantzun konparatuak

Galdera	Erantzuna
Ayer vino un hombre	A: atzo etorri zan gizon bat M: atzo tor (t)zen gizon bat
He visto seis hombres en el camino	A: sei gizon ikusi dut... bidean M: ikus ttut sei gizon bidean
El hombre ha pegado a un perro	A: gizonak jo, jo dio? zakur bat, zakur... jay! si no puedo... M: gizonak jo dio be txakurrei
Llévate ese pan	A: eman zazu ogi au... ogi ori! M: eman zazu ogi ori
Llevaos esos huevos	A: eman zazte arrotze oiek M: aman tzazte arrotze oiek
Los árboles son grandes	A: arbolak aundiek dira M: arbolak dee aundiek
Mi hermano es más fuerte que yo	A: nere anaya ni beño fuerte... M: ne anaie da ni beño fuerteau
La madre del jefe ha guisado su propia comida	A: nagusien amak in du bere... bere jatea o... M: nausien amak gisetu du bere bazkarie
Mañana no saldré de casa	A: biar... eztut, no saldré no sé... no me sale M: biar ez naiz itxetik atrako
¿Quién ha hecho matar a su perro?	A: nok in da, in du... bere zakurrari? pero no sé lo otro M: nok iñazi dio iltzia gure txakurrei?
¿Cuántos bueyes tienen en el pueblo?	A: zenbat ide, idie, dokete... errian? M: zenbat idi dozkite erriän?
El hombre que vino ayer estaba enfermo	A: gizona... atzo torri... geizki, geizki zéon, o... M: atzo tor zen gizona zeon gezki

#### 5. IHABAR: ANTONIO ARRAIZA IRAÑETA, GALARNEA ETXEKOA

##### «Zingulu mangulu» kantinela ezaguna Ihabarko bertsioan (1986)

«Au sarde, au bigo, gure mutikua nungo, ona bada itxeko, geixoa bada kanpoko; purrut, purrut, abuelandako» [barrez]. Después cogía al pecho prieto... sí, cogían, y mi abuela pues-pues e... madrina pa mí y... oi umia! aquella abuela lo que habría rezaö pa mí...

– Nongoa zen abuela hura?

Itxeköa, itxeköa. Ta, or beti... ¿cómo es pa rezar?

– Errezatzeko?

Errezatzen, beti errezatzen ure! muttikoa... eje!

– Ona izateko...

¡Eh! Más contenta, sí. En vasco no puedo hablar; pues, que si podría hablar en vasco te diría muchas cosas, pero me acuerdo que tenía, la abuela, la madre de mi padre, que era de Uharte. Sí, las dos abuelas, viejas las dos. Y la de Uharte tuvo tres hijos, y los tres hijos libró de la mili [...]. Me decían a mí: «A ti también te hemos de liberar de la mili [...]. Los últimos números excedente de cupo, o sea, libres. Y va y me toca a mí, por cinco números aquel último. «Ya te decíamos nosotros... algo hemos rezaö nosotros pa eso».

### Urteberriko kopla ezagunak (1986)

– Aizu Antonio, hemen, Eguberrieta edo Urtezaharrez edo, ez zen etxez etxe kantatzen? «Ur barrena, ur goiena» edo... hora nola zen?

Eso era: «Urteberri eun ona, egun onaren señalea, emen dakarregu ur berria, idiki zazu ataria». Y después, pues otras canciones y eso...

– Nola hasten zen? Hasi, nola? «Ur barrena»?

Sí, «Ur goiena, ur barrena / Urteberri, egun ona / Egun onaren señalea / Emen dakarregu ur berria / Agraezu... ataria».

Y después se, pues se cantaban unas cuantas canciones, y al último... «Sentitzen...», pero si no bajaban nada, nada, pues, ya se le cantaba a la mala, la esa:

«Sentitzen tzaitut, sentitzen / Ari zerala jeikitzen / Zuren urdeien zarraztakua / One-raño ezta aditzen».

Y... ¿y después? y ¡claro! seguiríamos cantando esas cosas bien. Después, como no se ha liaö eso, al último, pues ya no sale:

«Sentitzen zaitut, sentitzen / Ai zeala jeikitzen / Zuren ipurdien tarratakuak / One-raño ezta alitzen (sic)».

Y ya se can-, se iba. Se iba, ya no... no se cantaba más.

### Ixtorio ttiki bat (1986)

Un burro, un burro, vendió un burro, y... venía a casa y a la mujer y... le dijo: «Baldin»... quería, le quería comprar un trapero, y dice... «Baldin traperuakin konpondu bagiñe, txarraokua izen bear tzire gue astuaren fiñe, burni ta trapuzarra, galtza ta esparziñe? arren truke xabona, mixtoa ta sardiñek e. Orein Bizente dago gue astuaren jabe, noiz merkexago saldu, gu kontentu gaude».

– Eta hori, kantatuaedo?

Sí, sí.

– Eta nola da musika?

La música no; eso, el padre me... el padre me enseñaba, cantando<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Kontu hau Pernando Amezketarrera zela esan ohi zion gure berriemaileari bere aita zenak.

### Hizkuntz nahasteak (1986)

1) Coño, pues, ha tenido que aprender ya [...]: ¡Qué, qué se yo ahora, cómo se prepara el caballo! Primero se echa la basta al zaldi al bizker, después el aztalubel, del puztente he pillau, rau!

2) Abrir la escuela y [...] y marchó un poco tarde. Y el maestro, pues, le riñó, y le dice, a ver lo que... dónde había estaö, qué había hecho y: «Señor, don maestro, un txori he visto, arri he tirado, ankan has dado, sasi entrado, arren billa denbora pasado<sup>3</sup>».

### Jaunartzeko otoitz txiki desitxuratu xamarra (1986)

Lo único que me acuerdo es de, lo que más de... ¿para ir a comulgar? también cómo se reza pa ir a comulgar: «Yo no soy digno de entrar en tu...»

– Sí, pero eso es en castellano...

Sí, sí... sí: «Jaune... Jauna, ni enaiz digno beorren Dibina Majestadea errezipitzeko, beño ala ere erran<sup>4</sup> bedi, beorren Sandue izen daela nie anime sanatze ta salbatze».

### Zeinatzeaz bai, baina aitagureaz oroituz ez (1986)

«Gurutza sanduaren señalengatik, gure esaiutatik libra gatxazu Jaun eta Jangoikoa. Aitaren, Semiaren, Espiritu Sanduaren izenian, Amen».

– Eta aitagurea?

Aitagurea? no me acuerdo mucho ahora, e? no lo he rezao desde de...

[Zerbait eman zuen, baina oso gutxi].

### Agur-hitzak (1986)

Abuelak, gue etxeko abuelak, bere semeai: «Agur eta banua, despedidaren tristia, bizi banaiz etorriko naiz, adios nere maitia».

## 6. IHABAR: MICAELA HUARTE ARRARAS, SAKRISTARENA ETXEKOA

1987 urtetik 1989ra bitartean lau aldiz galdekatu genuen berriemaileak gai ezberdin asko xamar erabili zituenez, horiek, neurri batean bada ere, gaika ekarri ditugu balizko irakurleak gai batetik bestera jauzika ibili behar izan ez dezan. Testuak zazpi talde nagusitan bildu ditugu: 1) Nekazalgo-gaiak eta eskulanak; 2) Garai bateko herri-giroa; 3) Haur-jolasak; 4) Erlizioarekikoak; 5) Festa-girokoak; 6) Ohiko sendagintzaz zerbait; eta 7) Bestelakoak.

<sup>3</sup> Oskorriren *Doktor do re mi eta benedizebra* (2005) izeneko diskoan, Señor Maestro kanta ageri da. Hona bere letra: «Señor maestro / txoriya he visto / harriya tirau / hankian pegau / odola sakau / sasiyan trabau / buscando buscando / denbora pasau».

<sup>4</sup> Erran hori bitxia da hor, ez baita ohikoa izan Arakilen bertako mintzairak iraun duen XX. mendearren bukaera aldian.

*1 – Nekazalgo-gaiak eta eskulanak*

Lihoaaren inguruan, oro har, sokagintzaz eta ehungintzaz

Lihoaaren inguruan berriro, ehungintzaz orain ere

Lurra landu eta prestatzeko tresnak

Nekazalgo-erraminta eta bestelako tresna batzuen aipamena (1988)

*2 – Garai bateko herri-giroa*

Haurtzaroko euskal giro ahuldua

Mintzairaren nongotasuna

Hiriberriko botikara, lotsaturik

Herri arteko ezberdintasun lexikalak

*3 – Haur-jolasak*

Kuriketan

La cadena

Irrixkera

Prille

Koxkean

*4 – Erlizioarekikoak*

Otoitzak

Dotrinara joaten zeneko oroitzapenak

Eliz kanta apurrak eta misioen berri

Corpus eguneko prozesioa

Eliz kanta eta otoitz batzuk

Eliz ezkilak jotzeko erak

Andredena Mariaren Jasokundeko prozesioaz

Euskararen molde berria haurtzaroan ikasi otoitzetan

Erromeriak: Oskiako ermita, Aralarko San Migel, Ergako Trinitatea

San Migeleko ostatuaz

*5 – Festa-girokoak*

Inauteriez: Aitexarko, Landarra eta Ninja

Ttuntuneroa Iturmendiko festetara, biolinaren arkua ahantzirik

Ttuntuneroez berriro

Ingurutxoa herriko festetan: San Esteban

Inauteriez oraingoan ere, gauzak argituz

*6 – Ohiko sendagintzaz zerbait*

Begien hantura

Azaleko bikorrak

Irañetako ur sendagarriak

Garatxoak

Ohiko sendagintzaz beste zerbait

### 7 – Bestelakoak

Lumera, balearen oliao  
 Arrantzaz zerbait  
 Atarietan agurtzeko era  
 Aguazilak batzarrera deitzean ere horrela  
 Herri Batzarrea hamaika gizonek osatua  
 Behiak atorra hautsi zion uhartearraren  
 Aita eta senarra peoitzan ibiliak  
 Piper-opilik  
 Ardoa egiten ikusi ez

## 6.1. Nekazalgo-gaiak eta eskulanak

### Lihoaaren inguruan oro har, sokagintzaz eta ehungintzaz (1987)

... pa ese octubre tiene que estar con tres hojicas nacido el lino, y la otra no me acuerdo. «Ligöá... urríko? martx-, irú orríko». ¿Cómo será? ¡oi! algunas veces me viene todo al pelo, y otras veces no puedo arrancar; bueno, de todos modos, pa ese... pa ese mes, tiene que estar nacido con tres hojicas. ¿Cómo se dirá? no puedo pensar, a la noche en la cama pensare<sup>5</sup>.

– Aterako da beste egun batean.

Primero sembrar...

– Baino euskaraz kontatu behar duzu, e?

Úskeras; lemízko? lurré prestátu, ta eréin, ta geró, utzí? ondo ártio, ta ondòtzen dénian? záñetik átra, eskuéki(n); ne áite zén ortáko abílea, eskúe zóken áundie ta àrtzen tzuén? puxk áundi da arról<sup>6</sup>. Geró oré sekátu, oríxen, berdiñé? puxkátu, olá? déna... plégurean, sekátu; ta sekàtzen tzénian? bildú? eskùteká? ta, larrañèa amán? eta mázo, oláko... mázo át? eméndik makille paatú? te, [eskuak mugituz] áu bezelíxen? bóta? ta onéki? kíski-káska, kíski-káska? kéndu... áziä. Ta geró? ázie... alde bát? eta, lígu? es-kutéka? lótú? déna? eta, oré? ugéldia amáten zutén, paxúke lotúte, ugéldia, ta ugéldian óla, alánbre lòdi bét? erredónedoa lotú? ta án sártu, dénak aiek erán-erán-eràn-erán? buéltaka, ta, uréan... bajatú? úre... oníaño uré!

– Noraino?

Oniáño, bai, aíxe! bai.

– Nola esaten da? petxoraino edo bularreraino edo nola?

Bai, pùtzu áundi betián? sártu... mónton ore, déna, lígu ore, t'an? bedrátzi eunes idúki. Gáñen? arriékin, àrri áundi betzekí? esto... tapát(u)ik, úre ez, éz amáteko. Ta án úkitzen zutén? amárr egúnes do óla. Ta gèo uré? úretik atrá? ta amán àlorräá? ta dénak, eskuái? eskùteköa bádakizu ze (d)én e?... kábikóak esàten gíñuen guk; ta aiék, zútik paatú? àlorräán? sèkatzéko.

Sèkatú? ta aiék béis lotú? te amán itxéá? eta besté... trónku áundi bét e paátu... ólako... láurri bét e, áltó? éztakít, arrí betén gañén o zérpattín, lo que es, trónku áundi bét paàtzen

<sup>5</sup> Hurrengo ikustaldi batean bai, oroitzen; hona esaldia: *Ama Birjin urríko, liguá irú orríko*.

<sup>6</sup> OEHn (Mitxelena & Sarasola, 1987-2005) honela: «arrol. Fofo, hueco. Gizon arrol, gaztaina arrol».

zutén? olá? ta, emén iltzé at paatú? ta xoká? ta, oniañó? ta, anká agan, ójale bat ín? ta sartuík-eta. An? áu lígua bazèn bezéla? au? olíxe; áu ligöá? ta káxka-káxka-káxka-káxka, mallùki batekí? beáztu uré ta, ála! káxkala gògorr oré? kéndö, ta béis lótuaie.

Ta geró? ógi itten zuténian? abixétzen zutén: «Gáur in biúzte ogié?», ta «Bai, eta zuék?». «Báita». Íru láben o óla, íru itxéko o óla itten zutén, ogié? ta ògi atrá? ta, ligú aiek sártu án... ta urrèn goizián? gàrbadorák juàten tzeén, óre... garbátzea. Garbák ere dái... difizil de... ésplikatziá nólá dén.

– Lehen esan duzun hori...

Kaballéte bát bezéla.

– Hori da garba<sup>7</sup>, ezta?

Bai, pero, bëño lénbixkó? gizónak itten zutén... áu da máye, ta, liguá, ligú oré ola paatú? te eméndik zoketén soká at, iltze batékin, an, sùjetatuík, ta geró? sok oré? pàsten zutén óla, ta, ankaá-, ànkaáño yartzén zuté t'an, ankán zokéte... ójale bát? ta ójale artán sàrtzen zutén anká? ta, lígua sujétatuík! ta, oláko mallùki batéki? káxka-káxka-káxka, káxka-káxka-káxka? liy'ore beáztu itten zuten; ágotzá, zàkarr oré, juàten tzén. Ta etzén ori bastá! geró esan duné<sup>8</sup>, labián sartzén zittute(n). Kabíkoak esáten giñoten; geró? lótuaie itten zutén áu bezéla ta.

Geró, labián? dénak, erán-erán, èran-erán? paátzen zittutén lígu aiek, ta goizián, lauétako... goizéko lauetáko? garbadórauk juàten tzeén?... kàballetía bezéla zén gárba, ta án e, íru o olá? jòsiik, emén, bí o óla, laxó? josí? ta emén, erdién, beste át? ta ók gëldi samárr eóten tzeen, ta emén sujétatuík eta; emén bestoát? olíxen tòrtzen tzén, èrdiköá? bée eskùtekuáki, ta, emén láxo zuén, ol'áiek, tábla aiék ta, eméndik, klas! àndiguá sàrtzen zutén? olíxe(n)? eta eméndik, káxka-káxka, káxka-káxka-káxka... itten zutén... lígoa.

Ori zén, ta geó? oré e, etzén orrekín basta, geó, txàrrantxákin? béis, òrraxatú besterik éz zuten, ligúa fin-fiñé paátu artio, ta, lígu ok... zakàrren óre? pàsten zé, oré? zen... latzá? ta oré... zákuek ittéko ta... maindíre zákar batzék ittéko, biñó? déna apro-bétxatzen tze. Ta geró? errokártua, errokátu, èrrokakín? ta ardàtzariéki(n), ník e ikasi nuén biño, gútxi're; mákine bàgiñokén ta makiñékin ít(t)en giñuen, makinéki. Erroká? bakizú ze dén erroká? màkil betéki? puntén... paátzen ziotén... mórmulluái bezéla án e... bùltotto át? liguá.

– Nola esan duzu? Zer bezalakoa?

Ez, án e, pùntten paátzen ziotén, lígua biltzéko, bai, kóxkor bát, ta án lígua biltzen tzén? eta geró, erròkakí? ta óla, fíri-fíri-fíri árie at(e)rá? ta, ánkakín màten nión? ta belíxen itten giñuen! Ta geró? oré? itten giñuen e... ardàtzarién? zé-ta, oré? debanátu in bia giñuen, bagiñokén apárejuen... débanatzéko, óla makí-, esto... zùreskoá? itxán iñiköá? kruzéki? bi... óla? ta olá? an... itten nittuén... máteza; ta geró? oré? garbítu in bié giñuen, txúrie-txuríe paátu artio.

Oré, óri-órié gelditzen zén? aríe... èz zurié? óri-órié ta, txuríttu giñún... máinde-riák ittéko, vamos... aúntz-, aúnzéko, aùnzeliaí? téla ittekó, txuríttu in bie giñuen, màtezakí(n), geó garbítu, geó béis, esto... bíldu, esto, amáteko téla ittekó? bèle eztákizú zénbat táldetá in bia dén laná, eztakiténa esángó ute; biníkan nik usté esan dutéla déna, eztakít enténdittu duzun.

7 ‘Garba’ edo ‘ezpata’, gazt. *agramadera*.

8 ‘Dudana’ bide da hori, non eta ‘duguna’ ez den.

– Bai, bai, eta non garbitzen zen hori?  
 Errekán, ez giñokén labadorík; errekan.

– Eta nola eramatzen zenuten hara?

Errekára? bízkerrian artuté! egósi're bái itten giñuzén, lixúe ándik egósi itten tzén, kònportán, aièk e bái, konportán; etzén bat askí e, áldi bet, in biar zén irú do láu aldis: garbittú? sekatú? ta beís... garbíttu; ta beís sekatú? ta beís garbíttu. Olá ta ázi zen árie, ta txúri-txúrie atéra bear ziñuén? áunbaráköa ittekó? ta án ee, larrañén? paatzén giñuzén... kláro! txúriáo geldítze men deé, sasien beñó, larratsean, sèkatzen giñuén? ta, sekàtzen zénian, beís, egósi, txúri-xúrie iñ ártio.

– Eta *mullue* zer da?

Mullúe da, lígua, óla, txarrántxa bát giñokén, gauz bét, déna... óla, iltzíak góra, t'án pasten giñuén lígua; ta, zákárra, kéntzen tzakéón ta, müllue? úre zen, bëño ó... bástoó-köa lígua beñó, liguá... fíñená geldítzen tzén téla itteko. Uré ere bái, telá itten zén beño, zen... zákarráu, látzáu... látzáu, ta orgatík e, pástu bia zén an, gáuz artán; esáten giñún txàrrantxá, o esto... zúre bát, óla... óla, tábla, ta án? e... iltziak sartuik? pùntes góra? ta, án olíxen, orràxatzén bezéla, pástu lígoa? ta, nolá atràtzen dée... eméndik e ille... olá? bilduik? óla atràtzen zén án e, bilduik.

Oré? zen, zákarragóköa, oré maindéré látzak ittéko, ta áu... fíñao, bai; zènbaitt áldis àrtzen zutén fíñe, telá fíñé?... badugú gur'itxán téla fíñé, gu(k)?

– Eta zer da errokak, gerrian paratzean, gainean duen 'capucha' itxurako?...

Bai, erróka-estálkiä, sáten dakió, bai; bai, óla. Oré emén sártzen dá, ta, errokán biltzen dá buéltakán-buéltagán... müllué? ta erróka-estálki oré paràtzen dakióte? píxkuat estùtzen dá? ta, geró eme(n) sartú? te, àrdatzarí ba, éztakizú nola dén?

– Bai, bai-bai...

Bai, pùntten... fíñe? ta zenbáittek doketé... burní pixkuatéki, ta bésté zenbaitték doketé olíxen, bueltaká-bueltaká... árie án... bíltzeko? ta oré, atérat-, olaxén dokezú erroká? ta, olíxen buélta màten dió? ta belíxen arpàtzen dú... lígua, ta, belíxen-belíxen bueltá itten duzú? te, èsku onekín pro(b)átzen duzú... móduen? lígua? ta bésté onekín, biùrrittú? ta, óla, puskát ittettú? bíldu, an, árdazárie sáten dakió; ta ólixo, bëti óla, bëti... eskú et emén? ta bësteakí(n)? ardátzarie ta, bíldu. Ta gèo're, in biè tuzú matezák arrékin, àri arrékin. Ta bàgiñukén, [alaba Florari:] ¿No te acuerdas de aquel cacharro que teníamos pa devanar? ¡dos teníamos!...

– Nola zakion? Nola zuen izena?

Aieí, nóla esáten? espéra... oáin eztaké akórdatzen nóla zakiotén... bí giñozkien; bat? matezák ittéko, ta bestiá? pilloták ittéko, ta eztákit nóla sáten tzakió...

– Erróka-estalkia bai, arestian aipatu duzu...

Orí? müllue sújetatzekó, èrrokán. Errókán biltzen dá lígua, màkil bét da olá, lúzia, ta, pùnten doké... kóxkor bát, an, kòxkorr artán? e... àsten dá lígoa... bíltzen, ta géro, áunditzén, kláro! segùn daién... buélta màten? pues, móntontzen dá ligúa án, bíltzen dá an, sujètatzen dá; nòla dóke ébra?<sup>9</sup> ta, ba, an, sujètatzen da ta geró, pàtzen dakió erróka-estálkie? segùretik geldítzeatikán, ta, píxke-píxke, tíreka, atràtzen dá andik eskúeki(n), lígua, ta bësteakín? buéltaka-bueltaká? itten dá árie.

9 'Harizpia, harizuntza', alegia; gazi. *hebra*.

Ta, makínekin é biár duu erroká, màkinekíñ e, iguál-iguál bíldu bia dúu... errokán, ta iguál pátu bia duu emén, ta, màkinekín? ésku etekí(n)! aríe moldátu? éztakié obé, ezpàduzú aríe iúki, eskuékin moldátzen? pues iguál, etortze dakizú óla, liguá gor... góndo? ta, lódi-lodié ta etzínte aritu ní. Idúria duúne?... kóntus! laurríttu bia duzú eskú oneki(n), árie; geó, ásko etortzen badá? kéndu, ta, estirétu? te, paátu déna ígual, ta makínekin belíxen itten giñuen gúk laná. Oláixe.

### Lihoaaren inguruan berriro, ehungintzaz orain ere (1987)

- Eta ereiteko, zein tresnekin prestatzen zen lurra? Aurrenik prestatu behar baitzen... Lurrá prestátu, bai.
- Zerekin prestatzen zen?
- Pues, áriakín ta... ídiekín; lurré... bérdi(n), óso... xámurré, éz e... olá, zákarrá, óngi... konpónd(u)ik, gelditzéko olá, áu bezelíxe(n).
- Ongarriequin eta hola?
- Bai, bai; ongárri? eztakít zé ongárri kláse... eztá edozéin ongárri oná... àrrendakó, eztakeé akordátzen<sup>10</sup>, eztakít nún jártzen tziotén óngarriuk... gúk? lúrr öbénian ere o, lúrr ederrénian eraitten giñuen, lígo, ária-lurré, bàakizú? lurré... ùmedoá? fòndosoá? án eréitten giñun. Ta, jaiotzen tzén? ta geó? loriá atràtze zún axúl-axúle, ta ondòtzen tzénian? zañétik atràtzen tzen, oré ézta sékatzen, zañétik, átratzen da, ta èrozeñék eztú atartzén, óso estútuik geldítzen da, ta gu áitek atàtzen tzuén... belíxe, ésku goórrak zittún ta...
- Urrian ereiten zen?
- Urrién, bai.
- Eta bíldu?
- Bildú? bíldu... pues bueno, éztakit ze íz... de todos modos, úden... de todos modos úden; gariekín gútixis-gorabéra neskí, tórko zen.
- Eta zerekin mozten?
- Zañétik atràtzen zutén, etzutén beti [...], ez giñuen xegáztzen; átra, zañétik.
- Eskuekin?
- Eskuéki, oríxen! Ára, onéi artú te, braus! zañétik atráko banuké bezéla; ta geró, esàn duné? zañéki-tik atrá? ta, èran-erán, dénak plegurén? útzi, sekatzeko... ázie.
- Aizu, esaten duzun ‘plegure’ hori, zer da?
- Pleguré? como plegaöö, bien puesto, óngi, xuxén-txuxéna.
- Eta ‘eran-eran’?
- Erán-eran é... seguido.
- Eta ‘kabikoak’-edo... paxuek?
- Kabíkuak dée... [paper bat hartu zuen oriomenean zuena idurikatzeko] áu bezéla, áu balítze líguá bezéla? au, bat, déna óla, puxéka lotuík, óla; bíldu? áu bezéla? áu balítze liguá? òla bíldu? te, emén... lótua.
- Orduan, paxuek, ‘fajos’? Horiek dira kabikoak?

10 ‘Ez zait bururatzen’ edo.

Bai, fajos, sí, fajos? kabíkos, fajos pequeñitos... kabíkos. Sí, le llamamos, euskéras, kabíktoa, ta, érdien lotuik, lótuik e, bélarr... txúnkoekin d'olá, bakizú zer deén txunkék?

– Bai, ‘juncos’.

Juncos, txúnkoaki; lotú? ta geró aiék, úretik atrátzen giñùzenián? zut, ténte paatú? alórrean, píxkuat e... óla zabaldú? beittití? eta, gelditzten tzeén olíxe(n), zúti, áu bezeliken, zúti; ta án zórtzi o bedrátzi egunes? sekàtu artiō? sèko-séko ittèn zéenián? bildú? paxún? ta, itxéa.

Ta geó, beís, aiék... zanpátö, oláko gáuze bát? oláko... zùre bát? emén makil betekín? eta eméndik artzén tzuté? ta, bi éskiñ obekín? eskìñ obekín? kàska-káska, kàska-káska, ígual zanpátzen tzúten; paátzen tzutén, ól batén gañén, kábiktoa... bàrrat(u)ík? eta... án jo, gógotik.

Ta geó, beís, ín kabíktoa, áieki, béis atziá? lótua; zé lanak, e? Ta geó, labián, sártu, ta geó garbátu, ta garbátu ta geó, esàn duné? txàrrantxátu; fiñeá? àlde batéa? ta... bestéa, orràxakín, baakizú nóla atràtzen dén? oré, bëste alde batia.

– Eta gero matazak egin, ez?

Géo matezák? ba! geó? errokátu! jee! geó? errokátu bia díu! ta gió matezák in, ta gëo garbíttu; òri're gostàtzen dá gogotik, eztá lemìxkóan ta bigarneán t'ìrugarneán akáatzen... Jesús! lo menos, séi áldis... ín bietzu; [alabari:] ¿Qué te crees? como esto se queda aquello, es, hilaö, ya sabes; pa cuando poner blanco... ¡pues fíjate las veces que hay que colar! lo menos cuatro, cinco, seis veces ¡qué sé yo!...

– Eta matazak egin ondoren, ehuntzaleari eraman eta...

Matezak in, ta gero, pillotak in bie tuzu; pillotak itteko're bagiñoken gauz bet ola, kajon bat bezela? kajon bat bezela? ta geo, an, laugöa da, ta gañen ee, ola, kruzetak? eta kruzetan lau... zulo? ta, emendik gora? makil bet; ortik gora beste makil bet? lau makill eta, beitti zen zabala ta goitti mëarra, ta sartzen giñuen andik... mateza? ta majo gelditzten tzen an, ajustatuik eta, geo buelta at maten zuen arrek? arie biltzen ai giñen bezela? buelta maten tzön; beitti zeon sartuik makille? goitti ere bai? seguretik e... ez, alde atean atea ta bestea? txuxen-txuxena? guk pillotak itten giñuzen ta pillotak itten giñuzenien, maten giñon... auntzeliari.

– Hark egiten zituen maindereak eta...

Bai, bai...

– Beste inork ez zuen egiten?

Aiek itten zuten tela, auntzeliak.

– Herrian bazen bat edo beste?

Bi, bi...

– Eta haien makinari [ehungailuari] nola dakio, nola esaten zaio?

Espera... makina, bai, el telar, telar... ‘tran-tran’ esaten giñon, tran! tran!... ola, anka-kin itten tzun, ta tran! beste aldia, kanille, ta beste aldia, ta bestera...

– ‘Tran, tran, esta pa vino y esta pa pan’?

Orixé!

– Hori esaten zen?

Tran, tran, esto pal vino y esto pa pan.

– Esaten zen, e?

Bai, bai, bai...

– Horrela aditu dut nik beste herri txiki batean eta...

Bai, bai, bai... zoketen beste... nik esan dune, txiki bet giñoken guk matezak itteko; aiek zoketen, audi bet! ola, makille gora ta, an e... paatzen zuten pillota aieki(n), be-teik aris, ariek an... pat(u)ik! ta geo nik eztakiz (sic), nola? biltzen zuten? ta, paatzen tzuten... tela itteko lekuän, ‘telar’ esaten zioten.

– Eta euskaraz?

Euskeras? eztaki’nik nola seanko<sup>11</sup> giñuen, eztakee akordatzen nei.

– Ehuntzeko makina edo?

Makiñe? etzoketen makiñe aiek, dena eskus itt...

– Ehuna egiteko makina edo?

Makiñe? etzoketen daus, eskus itten tzuten, makinik ez zen, aiek etzoketen daus ez; denak, beak etzoketen makine, gutti te, batre.

– Ongi kontatzen duzu, e?

Eztakit, ez, ongi ez, nei gauz aztu dazkie, e?

### Lurra landu eta prestatzeko tresnak (1987)

– Oroitzen zara ‘area’ nolakoa zen? lurra prestatzeko makina hura...

Ze makine? zetako?

– Area, area...

Areatzeko? lurre... aaa! ordun ligua ere itten giñun garayen? makiñe? laye t’itten zu-ten oñiken orduen, guk erein giñunéan ligöa; laiekin, baakizu ze den laye? bai, layeki. Ta geo, ariak<sup>12</sup> ta... narra<sup>13</sup> saten giñun, orzakin dee eta... aria’re orzakin ta arrek, géo, tarralda<sup>14</sup> an, lurre... berdin(t)zuko, ori zen errementa...

– Narra... tarralda... lurra berdintzeko, zein?

Berdintzeko; tarralda? berdintzeko, ola, puxkuat? bee.. andaitzeki(n)?

– ¡Ah! ¿El timón? ¿la vara larga?

Bai, bai... sujetábamos... arrastatzeko.

– Bada beste bat, landarra...

Landarra? bai, landarra... zen, ola pixkuat ibiltzen zen? ta arrek e, oso... lurre txe-a-tzen tzuen. Ta... arëa? arrotzeko.

– Zenbat hortz ditu landarrak?

Ortzak landarrak? espera... sei, bedrätz... [alabari:] unos nueve ya tendría ¿verdad? era muy grande<sup>15</sup>...

Alaba: Tenía pa-, ¿la area? ¿es la landarra?

11 Esankoren metatesi bitxia, antza.

12 Uharte-Arakilgo Miguel Astizek, 2000n, areak bi eratakoak direla esan zigun: bata, bost hortzekoa; eta bestea, zazpikoa. Biak dira *áre-kúrrilloák*, antza (Artola, 2014, I, 172. or.).

13 Gure berriemaileak, 1990ean, *narrá: lúrre barratzéko narrá* eman bazigun ere (Artola, 2014, I, 172. or.). Azkuek, bere hiztegian, «*Narra: 4<sup>a</sup>* (B-l, ...), *narria, trineo rústico, traîneau basque*» dio, zenbait lekutan *lera* deitu ohi zaiona.

14 Egiaurreko Jose Lazkoz, 1981ean, honela mintzatu zen: *tarrálida, después del arado, para igualar* (Artola, 2014, I, 172. or.).

15 Urritzolako Juan Bautista Etxarren honela mintzatu zitzaigun *landarraz*, 1980an: *órtza batzuk... bèida beiré, lúrre lántzeko, ta, béiek o idíek o tratòria, erásten (t)zaió, ta atzétik juandá, joàten da orí... lúrre lantzen; amárren bát... ortzá iukitzén ttu; amár purní... lurrén sártzen deénak* (Artola, 2014, I, 172. or.).

No, aquella otra... que era así, que andaba un poco así, en el campo; area es así, eta... jah! no, ¿area-kurrillo? jah! la area-kurrillo<sup>16</sup>...

Alaba: No, la area es como un poco más estrecha delante.

Sí, pero... la landarra era más larga; dos varas, me parece que tenía ¿en los laös? y no sé si no tenía... otras dos así [...]

Alaba: Dos filas de dientes, sí.

Sí, más finos los dientes, dos filas ¿verdad? jah! ¿dos filas? pues entonces unos ocho dientes ya tendría la landarra, y la area-kurrillo? tendría unos seis... la area-kurrillo era así, dientes más largos.

Alaba: Nueve, unos nueve; tres, tres me parece que eran, o sea tres varas, y, yo creo que tres varas.

– Bakoitza hiru hortz? ¿cada una tres dientes?

Sí, la landarra era larga, y tenía así, para enganchar los bueyes adelante...

– ¿Con un bartubel?

Sí, bartubel es el del yugo, el... que se mete el... el timón, sí. Y como digo, ahí andaba... el aro ese de la cadena, y entonces, la landarra hacia este movimiento y la tierra se... arreglaba muy, muy bien. Y la area-kurrillo, no sé lo que quiere decir, ‘kurrillo’ era, a no ser que era por la forma, que le decían kurrillo, era así, a no ser que le decían por eso... esa arrozaba la tierra, tenía el diente...

– Harroztu, harrotu?

Arrotu, bai, arrotu; y así arreglábamos la tierra, como se podía, a vueltas, a vueltas.

#### Nekazalgo-erraminta eta bestelako tresna batzuen aipamena (1988)

Muy bonito ['arrastelua' edo 'eskuarea'], así...

Alaba: ¿Menos que esto? ¿así? y luego unos dienticos, así, de hierro.

Dienticos... así, sí. Sí, pa recoger el orbél; ya sabe lo que es orbél, la hojarrasca (sic), en euskera orbelá. Y pa recoger eso, y como tiene los dienticos de hierro, pues la tierrica, que se pone... la hoja cae y abajo se hace entonces una tierrica... suavecica, y aquello, de paso, se recoge con la hoja.

– Eta, hori da... ‘burruntxarre’?

Burruntxárre!... esto, jah! a esos rastrillos, a esos rastrillos de madera, zárréa; ya habrá visto, ya se ven, zárréa, y esos otros de dos pugas y tres y que son, ¿pa volver así? a esos bigöá.

– Ese es el de dos ¿no?

Alaba: Sí, de tres... y de cuatro.

Ba! y después, íru orzoko bigöá, o láu orzáko biguá, según... los dientes que tenía [...]: «kartzazú bi ortzáko biguá».

– Eta gerrena?

A! gerrená, sí, gerréna; ya tenemos una gerréna más maja, de dos pugas, con su... ¿caballete? ¿de tres pies y las dos pugas? y luego tenía un aparejo, una... cosa pa meter en los... ¿dientes? y, aquello le falta ahora, y aquí está; aquello metíamos allí y a la vuelta

<sup>16</sup> Juan Garmendiak zera dio erraminta hau dela eta: «Apero utilizado para escardar la tierra cuando la planta de maíz, remolacha, patata, etc., se halla poco desarrollada» (1987, 140. or.). Arakilgo Ekain bildua.

se guisa, ¡se asa la carne más bien en las brasas!... no hay como la brasa pa... p'al asaö, esto que se ase en el horno y... no sale tan jugoso.

– Beste gauza bat; ferretak zurezkoak dira?

Zúreskuak deé... ferraták, kupelák bezéla, ¿abajo? así, y después un poco más...

– Beheitian hola?

Bai, eta, burniékin... kúpela bezéla? íru búrni, ta arrekín kartzen giñuén úre: «Cuando vas a la fuente, ferrata buruan; no te vuelves a casa, iru-lau orduan».

– Hori esaten zen, e?

Ferráta, ya teníamos nosotros ferrátas, pero qué cosa más... no eran sanas, se ponía el agua... mal.

– A la vasija, nola esaten zioten?

Ùnziék, bai; únziketaríe sáten giñon, juáten tzenéan...

Alaba: ¿Esos eran los cencerros?

No, cencerro 'falía'... faliá.

– Al armario?

Àrmayúa.

– Y ¿al espetero? un aparador donde se ponen los platos y...

A!... espera, paàdoriá, pàdoriá. Parador, ¡pàdoriá le llamábamos!

– Y ¿al molinillo del café?

No, seguramente le llamariámos moledor, o móledoriá.

– Y ¿al almirez?

Al almirez... espera, àlmaíze.

## 6.2. Garai bateko herri-giroa

### Haurtzaroko euskal giro ahuldua (1987)

– Orduan, ihabartarra zara zu, e?

E? yabartarra?

– Zure herrira joan nintzenean zu zeunden etxe hartakoa?

Itxe artaköa, itxe artako, itxe zarr artaköa, itxe zarra.

– Eta, zure aitamatak ere, ihabartarrak?

Nee aite zen uertëarra.

– Eta ama?

Ama itxe artaköa, nee itxeköa, nire itxa ta, antxen... txiki artaköa naiz; t'an bizittu nitzen, iruetanogeita bi urteak artio.

– Zure haur denboran euskaraz egiten zen han...

Dena euskeras! dena euskeras! nik enekin itze bat e erderas.

– Karrikan ere bai?

U! denak! denakin, an erderik ez.

– Lagunen artean eta horrela ere bai, e?

Bai-bai, denak, euskeras itten giñun ize.

– Agustina Irurzunek, berriz, gutxi samar daki...

Bai, ore... da bederatzi urtes do... ni beño gatziao zen, bederatzi urtes an kanbio aun-die in tzue!

– Bai, kanbioak harrapatuko zuen eta...

Klaro! bai, kanbio aundie...

– Eta bada gizon bat ere...

Bai Antonio... Arraiza.

– Horrek ere pixka bat...

Arrek e gutxi; aite euskaldune zun arrek ee, beño, uertiarra zuen arrek e aite, beño, e!... erdera nai giñuen ordun!

– Eta ez dago besterik? Horiek bakarrik dira pixka bat dakitenak?

Bakarrik... oiek, oiek ta beste at ne adiñeköa, arrek e zerpai badaki beño, ez asko, ez.

– Beste andre batek?

Gaienak iru're bai; ni akordatzen naiz izeba ates, enakin nik erderas, eskola(a) juan nitzenian, batre, ta... dena euskeras! dena euskeras! Nee... abuelok bazakien erderas, aundia nai! biño, etzuen itze bat e itten, dena euskeras, ta nee aitek etzakien itze bat e erderas! Aite il tzenian? ni utzi nuen euskeras, aite il tzen nik oit'amalau urte nozke-nean, ta or, beti, uskeras aiteki; etzakien atzendu, bestelas a-, nee aite izendu balitze... esto, erdaldune? enuen jakiñein anbeste euskera, ne aitekin beti... euskera, arrek etza-kien itz bat e... erderas.

– Eta amarekin ere euskaraz egiten zenuen?

Ama ez nittun (!) zautu, ez; izeba izendu giñuen...

– Amaren ahizpa?

Amaren aizpa.

– Ama bat bezala izango zen...

Ama bezela, biño ore ere gazteik juan tzen? ta bakarrik geldittu giñe.

### Mintzairaren nongotasuna (1987)

– Orduan zure euskara Uharteko da gehiago Ihabarkoa baino?

Ba! Iabarkoa gaigo, Uertekua ere bai pixkuat beño... Iyabarkoa gaigo, bai. Bai, aite-kin e asko ikas nuen euskera nik, beti berakin euskeras ta, Gipuzkoako... itze franko bazazkin nee aitek, San Migelen izendu zen beti artzai, ta... iyendetan juate men tzen... asko, Gipuzko... jendea, ta... bazazkin gauze franko.

– Eta nor besterekin mintzatzen zinen edo... nola esaten duzue, ‘hitz egin’ edo ‘min-tzetu’ edo nola, nola esaten duzue?

Guk, mintzetu? vaya, zenbaitt aldis e bai, mintzetu.

– Nor besterekin mintzatzen zinen euskaraz?

Aitekin? ta, errien e? ni... bede(r)atzi urte nozkin artio, uskeras itten tzen, e?

– Neska eta mutil koxxorren artean ere?

Bai, bai! denak euskeras itten giñuen, denak, ooo!... denak.

– Orduan haietan, jolasean eta...

Joiasian (sic) ta, organ ta denea euskeras itten giñuen, beño gero... elkarr aittu giñun, aittu ginun bakotxak, ez giñuela euskeras... itzik in biar, te... denak, gero, eskolan asi giñenia(n)? denak erderas. Ta ola.

### Hiriberriko botikara, lotsaturik (1988)

– Zerez lotsatu?

Avergonzar, lotsatzen giñe, lotsatu.

– Zergatik?

Zergatik ez giñakien erderas, botikea an tzéon, Ireberrin; oin dau Irurzunen ta, orduen tzeon Ireberrien botike ta, joaten giñen botikea ta, bildurrek, irri, burle iñ ein zutela, bildurrek itze itteko. Botikea juaten giñen ta, juxto-juxtoa, maten giñon rezeta? ta ixi-ixiltui(k) itxe, itzik in bae, t'olixen. T'an, e! eskarmantatu in giñuen gu lotsa artzen! géo, erdera... ikes giñuelean? ez giñuen ikus nai euskera. Ta, kendu in zuten! euskera kendu in zen... aixe! Ta geo? denak erderas!... ta gero nolabaitt e ikex nuen, beleixen ikis nuen erdera; uskera zallaö da. Ta ala.

### **Herri arteko ezberdintasun lexikalak (1989)**

... maize, labian ta sartzeuk? ta, ola, erredondo atz(u)ek eztuzu ikusi zuk? ta, olako pala giñoken ta, bai, «Katzu... maiz-pala». Ta gue aitek saten tzun: «Katzu...» esto, arto-ola; guk ‘maiz-ola’, ta arrek ‘arto-ola’, artöa. Maizei? ‘arto’ san tzioten, ta guk, arrek esan tziun «katzu Artola», ta guk «katzu maizola»; bere, ze differentzie? ta... eskoai? aiek, Ugerten ta esatete<sup>17</sup>, eska-, esto... ‘isetxa’, ta guk ‘esko latza’, eskolatza; ta entradai duik e... baakizu, llano, ta, ‘entrada’, ta Uerten? ‘eskaatza’; mi’ze, ze differentziä? t’Irrent e bai, ta guk ‘idiek’, ta ayek ‘idiyek’... ta guk alorrai? ‘alorra’, ta aiek ‘soroa’; ta guk oyonai? (sic) esto, ‘oyana’, ta ayek ‘basoa’; mi’ze differentziä!... ta ola? ba gauz asko.

– Eta orduan ‘maiz-ola’ edo ‘arto-ola’ da...

Artola da, maize ta... ola, zabaltzeko? ola, ola... aragien, aragie... ere do ola badee, ola...

– Bai, haren gainean haragia zatikatu eta...

